

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera atera al izateko funtsezko elkarte batzuk eduki behar ditugu. Izan ere, elkarteak izan behar direlako gure bezeroak eta hauek gabe gure proiektua ezin baita aurrera atera.

Enpresa hauek postalaritzarekin zerikusia dutenak izan beharko dira, gure produktuak hauek bidalitako paketeekin funtzionatzen duelako. Esanguratsuenak diren enpresak Correos eta UPS izan daitezke, gure produktua interesatu dakiekeelako.



Hemen, funtsezko elkarte hauekin, postariak automatikoki paketeak kontsignetan sartzea nahi dugu. Hau, gure enpresa eta beraiena lotuta badaude bakarrik lortuko genuke. Beraiek denbora anitz aurreztuko zuten eta askoz erosoagoa izango zen, ez zutelako etxe guztietara joan beharko eta atez ate ibili norbait bilatzeko. Guk enpresa hauek bazkidetzat edukiz gero, jende gehiagok ezagutuko gintuzke, oso ospe ona dutelako postalaritzan, eta enpresa hauek gurekin egonez gero, jendeak gu kontratatuko gintuzke.

Lehendabizi, gure herriko Correos enpresara joango gara produktuaren berri ematera eta beraien iritzia jakitera. Horrela, gure produktuan zer hobetu dezakegun jakin dezakegu eta bide batez geroz eta jende gehiagok gure produktua ezagutu.



UGGASA agentziarekin ere kontaktuan jarri gara, gure ideari buruz proposamen berriak entzuteko eta zertan hobetu al genukeen galdetzeko. Badakigu enpresa honek dirurik ez duten eta ondorioz, bulegorik ez duten enpresa berriei bulego txiki batzuk uzten dizkietela, honela enpresa hasteko eta hazitzeko. Bulegoarekin guztia errazagoa izango zen, ez ginatekeelako egunero leku bat bilatzen ibili behar bertan lan egin al izateko.

Bulegoa edukitzeagatik hilean 25€ ordaindu behar ditugu, ura, elektrizitatea eta wifia edukitzeko.



E.E.

Horrez gain, gure produktua jendeak ezagutzeko, webgune bat sortzea erabaki dugu eta hemen gure produktuaren informazioa eskainiko dugu. Honi esker, jendeak webgunera sartu ahal izango du produktuaren ezaugarriak ikusteko eta honen bidez gure salmenten tasak gorantz egingo du. Hau sortzeko, honetan espezializatua dagoen pertsona bat kontratatu dugu, oso garrantzitsua delako webgune egoki bat edukitzea, eta horrela guk ez dugulako honetaz gehiago arduratu beharrik.

Honez gain, Diario Vasco egunkarian iragarki bat jartzen saiatuko gara, jende askok irakurtzen baitu; hau egiteko diseinu polit eta erakargarri bat behar dugu eta uste dugu gure lagun on batek doan egingo ligukeela.

